

2018/12/07

## **BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOAK 6.350.000 EUROTIK GORAKO AURREKONTUA ONARTU DAU 2019RAKO**

**Busturialdeko Ur Partzuergoko Kontseilu Orokorrak aho batez onartu dau 2019rako aurrekontua 6.351.765,28 eurotan. Honek, aurreko urtekoagaz alderatuta %2,85ko igoera suposatzen dau. Aurrekontuaren %21,6a inbertsioetarako izango da, 1.375.000 euro. Busturialdeko Ur Partzuergoko historian egingo dan inbertsinorik handiena suposatzen dau honek.**

Busturialdeko Ur Partzuergoak 2019rako aurrekontu orekatua onartu dau, diru-sarrerak eta gastuen arteko orekagaz, 6.351.765,28 eurotan. Zenbateko honek 2018 urteko aurrekontuagaz alderatuta %2,85ko igoera suposatzen dau eta 2017ko urteetako aurrekontuekaz alderatuta %7,53ko igoera.

Inbertsioen kapituluak igoerarik nabarmenena izango dau, 1.375.000 eurotik gorako zenbatekoa gaindituz, 2018ko aurrekontuagaz alderatuta %20,32 igoera suposatzen dau eta 2017ko aurrekontuagaz alderatuta %47,5 gehiago. Busturialdeko Ur Partzuergoko historian inbertsioetako kapitulurik handiena izango da. 2019ko inbertsiorik gehienak hornikuntza eta saneamentuetako instalazioak barriztu eta modernizatzeko proiektuak garatzeko erabiliko dira.

Pertsonal-gastuak eta gastu korrienteak eta zerbitzuei dagokionez, aurrekontu osoaren %76a suposatzen dabe hauek eta ez dira askorik aldatzen. Gastuetako kapitulan, %44a ondasun arruntak eta zerbitzuak dira eta %32a pertsonala ordaintzeko. Nahiz eta 2019an Sukarrietako eta Busturiako Ponpaketa estazioak martxan jarriko diran, pertsonal, gastu arruntak eta zerbitzuetako gastuak ez dira aldatuko 2018ko aurrekontuko zifrakaz alderatuta. Hauetan instalazio hauek martxan jartzea aurreikusi zan eta agerian danez, hauek atzeratu dira.